

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Bitarteko Eragileak dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2024 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Agentes Intermedios para el año 2024.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: Bizkaia, talentuarekiko konpromisoa; Ekintzailtza aurreratua, Bizkaiko enpresa-sare berriaren motor gisa; Industria eta zerbitzu aurreratuak, lehiakortasun jasangarrirako apustu indartsuagoa; Bizkaia orekatua eta kohesionatua; eta Bizkaia irekia eta erakargarria; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: Bizkaia, compromiso por el talento; Emprendimiento avanzado como motor del nuevo tejido empresarial de Bizkaia; Industria y servicios avanzados, una apuesta reforzada por la competitividad sostenible; Bizkaia equilibrada y cohesionada; y Bizkaia abierta y atractiva; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea Bitarteko Eragileak dirulaguntza-programa arautzea

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto regular el programa de subvenciones





da 2024 urterako, eta horren helburua da erronka ekonomiko eta sozial jakin batzuei aurre egiten lagunduko duten proiektuak garatzen laguntzea, enpresa-sarea dinamizatuz.

Bizkaian, sektore ekonomikoak dinamizatzea helburu duten enpresa-elkarteen eta beste eragile batzuen sare trinkoa dago. Enpresak mobilizatzeko gaitasun handia duten erakundeak dira. Laguntza-programa honen helburua gaitasun hori baliatzea eta bitarteko eragile horien ekimenak babestea da, Bizkaiaarentzat estrategikotzat jotzen diren erronka jakin batzuei aurre egiteko.

Zehatzago, programa honek zazpi gairen inguruko proiektuak bultzatzen ditu: enpresen arteko lankidetzak, ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarrien garapena, industria-ezarpenak Bizkaian birkokatzea, enpresen digitalizazioa, enpresen errotzea eta jarraipena Bizkaian, berrikuntza irekia eta Bizkaiko enpresen nazioartekotzea. Proiektuak zuzenean enpresei zuzenduta egon beharko dira, eta gutxienez bost enpresa sartu beharko dira horietan.

2024. edizio honetan, Bitarteko Eragileak programak aurreko urteetan Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko programan diruz lagundutako proiektu-motari laguntza ematen dio. Izan ere, bi programen bat egitea gertatu da, Bitarteko Eragileak programa izenarekin, programaren kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, kontuan hartuta bi programak

Agentes intermedios para el año 2024 cuya finalidad es favorecer el desarrollo de proyectos que ayuden a afrontar determinados retos clave económicos y sociales, mediante la dinamización del tejido empresarial.

En Bizkaia existe un denso tejido de asociaciones empresariales y otros agentes que tienen entre sus objetivos la dinamización de sectores económicos. Son entidades con alta capacidad de movilización de empresas. Este programa de ayudas pretende aprovechar esa capacidad y apoyar iniciativas de esos agentes intermedios cuando se encaminen a encarar determinados retos considerados estratégicos para Bizkaia.

En concreto, este programa impulsa proyectos en torno a siete temáticas: la cooperación entre empresas, el desarrollo de modelos de producción y consumo sostenibles, la reubicación de implantaciones industriales en Bizkaia, la digitalización de las empresas, el arraigo y continuidad de las empresas en Bizkaia, la innovación abierta y la internacionalización de las empresas de Bizkaia. Los proyectos deberán estar dirigidos directamente a las empresas e involucrar en ellos a un mínimo de cinco empresas.

En esta edición 2024 el programa Agentes Intermedios integra el apoyo al tipo de proyectos que han sido subvencionados en el programa Fomento de Consorcios Internacionales en años anteriores. Se ha producido, de hecho, una fusión de ambos programas, bajo la denominación de programa Agentes Intermedios, para mejorar la eficacia y eficiencia en la gestión





erakunde onuradun berberei zuzenduta zeudela.

del programa, habida cuenta que ambos programas estaban dirigidos a las mismas entidades beneficiarias.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2024-2027 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen bi ekintza aurreikusten ditu dekretu honen bidez diruz lagundu daitekeen proiektuak bermatzeko, Bizkaiko Lurralde historikoaren aurrekontu orokorretan urtero esleitzen dira beharrezkoak diren kredituak eraginkorrak egiteko. Dirulaguntza ekintza horiek “Laguntza Bitarteko Eragileen proiektuei” eta “Enpresen arteko nazioarteko lankidetzak ariketak Bermatzea” deitzen dira eta “Industria eta zerbitzu aurreratuak: apustu sendoa lehiakortasun jasangarriaren alde” helburu estrategikoa lortzen laguntzen dute; honen barruan, “Lehiakortasuna hobetzeko proiektuen garapena Bizkaiko enpresen berrikuntzaren bidez” eta “Bizkaiko enpresen irteera nazioarteko merkatuetatik bermatzea” helburu zehatzak lortzen laguntzen dute, hurrenez hurren.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Promoción Económica prevé dos acciones subvencionables destinadas a apoyar los proyectos objeto de subvención en este decreto, y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas. Dichas acciones subvencionables están denominadas “Apoyo a proyectos de agentes intermedios” y “Apoyar las actividades de cooperación internacional entre empresas” y contribuye a la contribución del objetivo estratégico “Industria y servicios avanzados: una apuesta reforzada por la competitividad sostenible” y, dentro de él, de los objetivos específicos “Apoyar el desarrollo de proyectos de mejora de competitividad a través de la innovación en empresas de Bizkaia” y “Apoyar la salida a los mercados internacionales de las empresas de Bizkaia”, respectivamente.

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez,

II

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se





foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio ondoren aipatzen den arloko jarduna: enpresen lehiakortasuna hobetzea, bereziki enpresa txikiena, berrikuntza ardatz nagusitzat hartuta; industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jardura esportatzailea laguntzea, eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea].

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en la mejora de la competitividad empresarial y especialmente de las pequeñas empresas, teniendo como eje fundamental la innovación, el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia, fortalecer los servicios avanzados en conocimiento, impulsar el proceso de internacionalización de las pymes y el apoyo a la actividad exportadora, y la promoción de la cooperación empresarial.

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:





- | | |
|--|--|
| 1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa | 1. Evaluación preliminar del impacto de género. |
| 2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa. | 2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica. |
| 3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena. | 3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género. |
| 4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa. | 4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación. |
| 5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena. | 5. Informe de control económico. |
| 6. Legezkotasunari buruzko txostena. | 6. Informe de legalidad. |

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita, orain 1/2023 Legegintzako Dekretua). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005 (ahora Decreto Legislativo 1/2023). En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en





autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetan ezartzen den araubidea duten dirulaguntzak ez dira lehia askea babesteko Europako araudian araututako estatu-laguntza bat (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua eta hurrengoak), erronka jakin batzuk sustatzeko ekimenak babestea baitute helburu, esaterako, lankidetzak, ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarrien garapena, digitalizazioa, Bizkaian industria-instalazioak birkokatzea, berrikuntza irekia eta nazioartekotzearen bultzada; izan ere, onuradunek ezin dituzte jarduera horiek finantzatu merkatuko truke ekonomikoen bidez. Beraz, estatu kideen arteko truke komertzialei eragiten ez dien proiektu bat da.

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru

el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la “Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia” aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases no constituyen una ayuda de estado regulada en la normativa europea de protección de la libre competencia (artículo 107 y siguientes del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, TFUE), dado que tienen por objeto apoyar iniciativas de fomento de determinados retos tales como la cooperación, el desarrollo de modelos de producción y consumo sostenibles, la digitalización, la reubicación de implantaciones industriales en Bizkaia, la innovación abierta o el impulso de la internacionalización, que no son actividades que las beneficiarias puedan financiar a través de intercambios económicos en el mercado. Por tanto, se trata de un proyecto que no afecta a los intercambios comerciales entre Estados miembros.

V

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la





Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2024ko otsailaren 29ko bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de promoción económica proponer este proyecto de decreto foral.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de promoción económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 29 de febrero de 2024

DISPONGO:

Artículo único. Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.





2024 urterako Bitarteko Eragileak dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

Se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Agentes Intermedios para el año 2024 cuyo texto se incluye a continuación.

Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

Disposición adicional única. *Protección de datos de carácter personal.*

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/ EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la





egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

Xedapen iragankor bakarra xedapen iragankorra. *Aurreko urteko Bitarteko Eragileak eta Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko programak aplikatzea.*

2023ko Bitarteko Eragileak eta 2023ko Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko dirulaguntza programa arautzen dituzten oinarriak eta deialdia onetsi zituzten Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren

solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión (“derecho al olvido”), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Disposición transitoria única *Aplicación de los Programas Agentes Intermedios y Fomento de Consorcios Internacionales del año anterior.*

Los procedimientos de reintegros, procedimientos sancionadores, recursos, revisiones y cualquier otro incidente derivado de solicitudes presentadas al amparo de los Decretos Forales de la





14ko 26/2023 eta urtarrilaren 10eko 5/2023 Foru Dekretuen babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekursoak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horietan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

Diputación Foral de Bizkaia 26/2023, de 14 de marzo, y 5/2023, de 10 de enero, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones Agentes Intermedios 2023 y Fomento de Consorcios Internacionales 2023, respectivamente, serán resueltos conforme a lo establecido en dichos decretos forales.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Aurreko urteko Bitarteko Eragileak eta Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko dirulaguntza-programak indargabetzea.*

Disposición derogatoria única. *Derogación de los programas de subvenciones Agentes Intermedios y Fomento de Consorcios Internacionales del año anterior.*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko dira martxoaren 14ko 26/2023 eta urtarrilaren 10eko 5/2023 Foru Dekretuak; hala ere, aplikatu daiteke beraien indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

A la entrada en vigor del presente decreto foral, quedan derogados los Decretos Forales 26/2023, de 14 de marzo, y 5/2023, de 10 de enero, sin perjuicio de su aplicación a las situaciones creadas bajo su vigencia en los términos previstos en la Disposición transitoria única.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak ematea.*

Disposición final primera. *Habilitación de facultades.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

1. Se faculta a la diputada foral de promoción económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que





39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onartzen diren deialdiaren laburpena.

1. Las bases reguladoras aprobadas por este decreto foral entrarán en vigor, una vez publicadas en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, el día que se publique en dicho boletín el extracto de la convocatoria que se aprueba conjuntamente.

2. Foru dekretu honen bidez onartutako deialdiak ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratzen den egunetik aurrera.

2. La convocatoria aprobada por este decreto foral tendrá efectos desde el día que se publique en el “Boletín Oficial de Bizkaia” el extracto de la convocatoria.

Bilbon, 2024ko otsailaren 29an

Dado en Bilbao, a 29 de febrero de 2024

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua / La diputada foral de Promoción Económica.
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA





BITARTEKO ERAGILEAK
DIRULAGUNTZA-PROGRAMA
ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA
DEIALDIA 2024 URTERAKO

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE
SUBVENCIONES AGENTES INTERMEDIOS
PARA EL AÑO 2024.

Aurkibidea:

Índice:

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

TÍTULO I **Disposiciones generales**

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

2. oinarria. *Definizioak*

Base 2. *Definiciones*

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

7. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

Base 7. *Dotación presupuestaria.*

II. TITULUA **Araubide juridikoa**

TÍTULO II **Régimen jurídico**

8. oinarria. *Araubide juridikoa.*

Base 8. *Régimen jurídico.*

9. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.*

Base 9. *Órganos competentes y entidad colaboradora.*

10. oinarria. *Arau-haustek eta zehapenak.*

Base 10. *Infracciones y sanciones.*

11. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

Base 11. *Incumplimiento y reintegro.*

12. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

Base 12. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*

III. TITULUA **Dirulaguntzak emateko prozedura**

TÍTULO III **Procedimiento de concesión**





13. oinarria. <i>Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak eta SEPEn inskribatzea.</i>	Base 13. <i>Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites e inscripción en el REPPE.</i>
14. oinarria. <i>Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa eta interoperabilitatea.</i>	Base 14. <i>Documentación necesaria para la solicitud e interoperabilidad.</i>
15. oinarria. <i>Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.</i>	Base 15. <i>Subsanación o mejora de la solicitud.</i>
16. oinarria. <i>Dirulaguntza emateko prozedura.</i>	Base 16. <i>Procedimiento de concesión.</i>
17. oinarria. <i>Eskabideak baloratzeko irizpideak.</i>	Base 17. <i>Criterios de valoración de las solicitudes.</i>
18. oinarria. <i>Ebazpena.</i>	Base 18. <i>Resolución.</i>
19. oinarria. <i>Errekurtsoak.</i>	Base 19. <i>Recursos.</i>
20. oinarria. <i>Dirulaguntzari uko egitea.</i>	Base 20. <i>Renuncia a la subvención.</i>
21. oinarria. <i>Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.</i>	Base 21. <i>Modificación de la resolución de concesión.</i>
22. oinarria. <i>Emandako dirulaguntzen publizitatea.</i>	Base 22. <i>Publicidad de las subvenciones concedidas.</i>
23. oinarria. <i>Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.</i>	Base 23. <i>Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.</i>
24. oinarria. <i>Jakinarazpen elektronikoa.</i>	Base 24. <i>Notificación electrónica.</i>
IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola	TÍTULO IV Ejecución, justificación y control
25. oinarria. <i>Gauatzeko epea.</i>	Base 25. <i>Plazo de ejecución.</i>
26. oinarria. <i>Justifikazio-epea.</i>	Base 26. <i>Plazo de justificación.</i>
27. oinarria. <i>Azpikuntratazioaren baldintzak.</i>	Base 27. <i>Condiciones de subcontratación.</i>





28. oinarria. <i>Dirulaguntzak justifikatzea.</i>	Base 28. <i>Justificación de las subvenciones.</i>
29. oinarria. <i>Dirulaguntza ordaintzea.</i>	Base 29. <i>Pago de la subvención.</i>
30. oinarria <i>Laguntzen bateragarritasuna.</i>	Base 30 <i>Compatibilidad de las ayudas.</i>
31. oinarria. <i>Pertsona onuradunen beste betebeharrak batzuk.</i>	Base 31. <i>Otras obligaciones de las personas beneficiarias.</i>

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*

Dirulaguntza-programa honen helburua Bizkaiko enpresa-sarearen erronka jakin batzuei aurre egitea da, sektore-eremuko bitarteko eragileek bultzatutako proiektuen bidez, non enpresek eurek parte hartzen duten.

Proiektuek honako erronka hauek izan behar dituzte ardatz: enpresen arteko lankidetzak, ingurumenari dagokionez jasagarriak diren ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasagarrien sustapena, industria-ezarpenak eta hornidura-kateak Bizkaian birkokatzea, digitalizazioa enpresetan, lurraldean enpresen jarraitutasuna eta errotzea, berrikuntza irekiko dinamikak enpresen artean zabaltzea eta enpresen nazioartekotzea batera egindako merkatuen miaketa jardueren bidez.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

Mediante este programa de subvenciones se pretende afrontar determinados retos del tejido empresarial de Bizkaia mediante proyectos impulsados por agentes intermedios de ámbito sectorial, en los que participen las propias empresas.

Los retos en torno a los que deben girar los proyectos son la cooperación interempresarial, el impulso de modelos de producción y consumo medioambientalmente sostenibles, la reubicación en Bizkaia de implantaciones industriales y cadenas de suministro, la digitalización de las empresas, la continuidad empresarial y su arraigo dentro del territorio, la extensión de las dinámicas de innovación abierta entre las empresas y la internacionalización de las empresas mediante actividades de exploración de mercado realizada conjuntamente.





2. oinarria. Definizioak.

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

a) «Bitarteko agentea edo eragilea»: Elkartea, fundazio, federazio edo konfederazio forma juridikoa duen erakundea, irabazi-asmorik ez duena, bere estatutuetan sektore edo lurralde jakin bateko edo gai jakin baten inguruko enpresa-kolektibo bat dinamizatzea aurreikusten duena, bere lehiakortasuna indartzeko. Bitarteko agenteak bere estatutuetan jasoko du kolektibo horretako enpresek erakundearen bazkide gisa edo pareko figura gisa parte hartuko dutela.

b) «Enpresa»: bezeroek eskatzen dituzten ondasunak edo zerbitzuak ekoizten edo ematen dituen erakundea; jarduera horretatik etekin ekonomiko bat lortzen duena, berez nortasun juridikoa duena, hura sortu zuten, kapital soziala duten edo bertan lan egiten duten pertsonak alde batera utzita. Halakotzat hartuko dira sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, komanditako sozietate sinpleak edo akziozkoak, kooperatiba-sozietateak, mutuak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, merkataritza-forma duten sozietate zibilak, elkarren bermerako sozietateak eta interes ekonomikoko elkartek.

c) «Enpresa Txiki Eta Ertain -ETEE-»: Enpresa txiki eta ertaintzat joko dira enpresa txikiak eta ertainak Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen ondorioz (2014-06-26ko AO, L 187), zenbait

Base 2. Definiciones.

A los efectos de las presentes bases y convocatoria se entenderá por:

a) «Agente intermedio»: Entidad con forma jurídica de asociación, fundación, federación o confederación, que no tiene ánimo de lucro, que contempla en sus estatutos la dinamización de un colectivo de empresas pertenecientes a un determinado sector o territorio o en torno a una determinada temática con el objeto de fortalecer su competitividad. El agente intermedio contemplará en sus estatutos la participación en ella de las empresas de dicho colectivo en forma de socias de la entidad o figuras asimilables.

b) «Empresa»: organización que se dedica a la producción o prestación de bienes o servicios que son demandados por clientes; obteniendo de esta actividad un rédito económico, que en sí misma tiene personalidad jurídica independientemente de las personas que la fundaron, poseen su capital social o desarrollan en ellas su trabajo. Se considerarán como tal las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades comanditarias simples o por acciones, sociedades cooperativas, mutuas, mutualidades de previsión social, sociedades civiles con forma mercantil, sociedades de garantía recíproca y agrupaciones de interés económico.

c) «Pyme»: Se entenderá por pymes, las pequeñas y medianas empresas, de acuerdo con lo establecido en el anexo I del Reglamento (UE) 651/2014 de la Comisión, de 17 de junio de 2014 por el que se declaran





laguntza-kategoria barruko merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorrira.

d) «Enpresak dinamizatzea»: enpresa-kolektibo jakin bati zuzendutako jarduerak garatzea, enpresa horiek konbentzitu eta arrastaka eraman ditzaten jokabide eta jarrera jakin batzuk har ditzaten, edo enpresa-ekosistema hori eraldatzeko testuinguru mesedegarriak sortzera bideratutakoak, enpresa-kolektibo horren eta palanka eraldatzaileen inguruko inguruabarrak eta baldintzak aztertuta.

e) «Enpresa parte-hartzailea»: proiektu bateko jardueretan modu eraginkor eta bizian parte hartzen duen enpresa, enpresak denbora eta baliabideak eskaintzen dizkiona. Ez dira enpresa parte-hartzailetzat hartzen topaketetara, jardunaldietara edo aurkezpenetara joaten direnak soilik, ezta informazioa, buletinak edo argitalpenak jasotzen dituztenak ere. Dirulaguntzaren eskabidean, eskatzaileak proiektuan aurreikusitako enpresa parte-hartzaileak adierazi beharko ditu. Dirulaguntzaren justifikazioan, onuradunak adierazi beharko du zeintzuk izan diren benetan parte hartu duten erakundeak.

f) «Enpresa atxikia»: proiektuan enpresa parte-hartzailea izateko konpromisoa adierazi duen enpresa, dirulaguntza eskatu aurretik erakunde eskatzaileari atxikitze-agiri bat emanda.

determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DO, L 187, de 26-06-2014).

d) «Dinamización de empresas»: desarrollo de actividades dirigidas a un colectivo determinado de empresas para convencer y arrastrar a esas empresas a que adopten determinados comportamientos y actitudes o encaminadas a generar contextos favorecedores para transformar ese ecosistema empresarial, a partir del análisis de las circunstancias y condicionantes que rodean a ese colectivo de empresas y sus palancas transformadoras.

e) «Empresa participante»: empresa que de forma efectiva e intensa toma parte en las actividades de un proyecto, que implican la dedicación de tiempo y recursos por parte de la empresa. No se consideran empresas participantes las meras asistentes a encuentros, jornadas o presentaciones; ni las meras receptoras de información, boletines o publicaciones. En la solicitud de subvención la entidad solicitante deberá indicar las empresas participantes previstas en el proyecto. En la justificación de la subvención la entidad beneficiaria deberá indicar cuáles han sido las entidades realmente participantes en el mismo.

f) «Empresa adherida»: empresa que ha manifestado su compromiso de ser empresa participante en el proyecto, mediante la entrega de un documento de adhesión a la entidad solicitante con carácter previo a la solicitud de subvención.





g) «Enpresen arteko lankidetzak»: enpresen artean jarduerak modu partekatuan eta koordinatuan garatzea, horietako bakoitzaren negozioarentzat onura bat bilatze aldera, zailagoa izango litzatekeena lortzea jarduera horiek banaka egiten badituzte. Enpresen arteko lankidetzak berekin ekar dezake negozioan elkarrekin parte hartzea, arriskuak eta emaitzak partekatuz, baina ez da zertan horretara iritsi.

h) «Lankidetzak-akordioak»: dokumentu horretan, enpresa bakoitzaren arrazoia, helburuak, lankidetzaren iraupena, zereginen banaketa eta kostuen banaketa jasotzen dira.

i) «Ekonomia zirkularra»: ekoizpen- eta kontsumo-eredu bat da, gai birjinen eta energiaren kontsumoa eta kanpo-efektu negatiboak sortzea (hondakinak, isuriak...) minimizatzea eskatzen duena, haiek osatzen dituzten produktuen eta materialen bizi-zikloak hedatuz, haien erabilera optimizatuz eta produkzio-zikloan behin eta berriz sartuz. Helburua da produktuak partekatzea, berrerabiltzea, konpontzea eta berriz manufakturatzea, eta hondakinak birziklatzea, balorizatzea eta aprobetxatzea, materialak ahal den neurrian ekonomiaren barruan egon daitezen eta behin eta berriz berrerabili ahal izan daitezen. Osagarri gisa, materia eta energiaren erabilera eta hondakinen eta isurien sorrera minimizatzeak, produktuen desmaterializazioan, prozesuen eraginkortasuna eta materia eta energia berriztagarri edo

g) «Cooperación interempresarial» o «Cooperación entre empresas»: desarrollo de actividades de forma compartida y coordinada entre empresas, en la búsqueda de un beneficio para el negocio de cada una de ellas, que sería más complejo alcanzar si desarrollasen esas actividades individualmente. La cooperación interempresarial puede derivar, aunque no implica necesariamente, la participación conjunta en negocio compartiendo riesgos y resultados.

h) «Acuerdo de cooperación»: documento que recoge el motivo, objetivos, duración de la cooperación, el reparto de tareas y el reparto de los costes que asume cada empresa.

i) «Economía circular»: es un modelo de producción y consumo que implica minimizar el consumo de materias vírgenes y energía y la generación de externalidades negativas (residuos, emisiones...), mediante la extensión de los ciclos de vida de los productos y los materiales que los componen, optimizando su uso y reintroduciéndolos en el ciclo productivo una y otra vez. Persigue el uso compartido, la reutilización, reparación y remanufactura de productos, el reciclaje, valorización y aprovechamiento de residuos, para que los materiales se mantengan dentro de la economía tanto como sea posible y puedan ser reutilizados una y otra vez. Complementariamente, para minimizar la utilización de materia y energía y la generación de residuos y emisiones, incide en la desmaterialización de los productos, la eficiencia de los procesos y el empleo de materias y energías renovables o biodegradables. La economía circular





biodegradagarrien erabileran eragiten du. Ekonomia zirkularrak sistemen erresilientzia areagotzen du, kanpoko mendekotasuna minimizatuz eta ekosistemetan gutxieneko inpaktuak sortuz.

j) «Berrikuntza enpresan»: Enpresa-berrikuntza produktu, zerbitzu edo negozio-prozesu berri edo hobetu bat da (edo bien arteko konbinazioa), enpresaren aurretiko produktuetatik edo negozio-prozesuetatik nabarmen desberdina dena eta merkatuan sartu edo enpresan ezarri dena.

Berrikuntza teknologikoa edo beste arlo batekoa izan daiteke. Enpresak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuetan zein prozesuetako edozeinetan egin daiteke (produkzioa, hornikuntza, merkataritza, banaketa, pertsonen kudeaketa, laguntza-prozesuak, negozioaren garapena...).

Berrikuntzaren arloan hemen adierazi ez denari dagokionez, 2018ko Osloko Eskuliburuan (Berrikuntzari buruzko datuak bildu, igorri eta erabiltzeko gidak, 4. edizioa, ELGA) jasotako definizioak hartuko dira kontuan.

k) «Berrikuntza irekia»: enpresek beste enpresa batzuen kanpo-ezagutza hautemateko, erakartzeko eta hautatzeko erabiltzen dituzten dinamikak, batez ere start-up edo enpresa txikiena, berrikuntza-erronkei erantzun diezaieketenak. Horrela, tamaina handieneko enpresak talenturik onenarekin harremanetan jartzen dira eta beren negozioarako azken teknologia eta irtenbide berritzaileak ezagutzen dituzte.

aumenta la resiliencia de los sistemas al minimizar la dependencia externa y generar impactos mínimos sobre los ecosistemas.

j) «Innovación en la empresa»: Una innovación empresarial es un nuevo o mejorado producto/servicio o proceso de negocio (o una combinación de ambos) que difiere significativamente de los productos o procesos de negocio previos de la empresa y que ha sido introducido en el mercado o implementado en la empresa.

La innovación podrá ser tecnológica o de otra índole. Podrá reflejarse tanto en los productos y servicios de la empresa como en cualquiera de los procesos (producción, aprovisionamiento, comercial, distribución, gestión de personas, procesos de apoyo, desarrollo de negocio...).

En lo aquí no reflejado relativo a la innovación, se estará a las definiciones recogidas Manual de Oslo 2018, Guías para la recogida, reporte y utilización de datos sobre innovación, 4ª edición, editado por la OCDE.

k) «Innovación abierta»: las dinámicas que las empresas utilizan para detectar, atraer y seleccionar conocimiento externo de otras empresas, principalmente start-ups o empresas de pequeño tamaño, que puedan dar respuesta a sus retos de innovación. De esta forma, las empresas de mayor tamaño entran en contacto con el mejor talento y conocen las últimas tecnologías y soluciones novedosas para su negocio. Las start-ups y pequeñas empresas, por su parte, tienen la





Bestalde, start-up eta enpresa txikiek aukera dute lehen mailako bezeroekin lan egiteko eta merkatu, finantzaketa eta inbertsio berrietara sartzeko.

oportunidad de trabajar con clientes de primer nivel y acceder a nuevos mercados, financiación e inversión.

l) «Digitalizazioa»: EIKTak (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologia) enpresetan ezartzea, bai tokiko instalazioa (on premise), bai SaaS (Software as a Service) eran. Digitalizazioaren kontzeptua Bizkaiko Foru Aldundiaren Trantsizio Digitalari buruzko dirulaguntzen programa arautzen duen indarreko dekretuaren zentzuan ulertuko da. Zehazki, digitalizazioa dagoela ulertuko da dekretu horretan araututako digitalizazio oinarritzko eta aurreratuko teknologia ezartzeari dagokionez.

l) «Digitalización»: implantación en las empresas de TEICs (Tecnologías de la Electrónica, la Información y las Telecomunicaciones), tanto en instalación local (on premise) como en modalidad SaaS (software as a Service). El concepto de digitalización será entendido en el sentido del decreto regulador en vigor del programa de subvenciones Transición Digital de la Diputación Foral de Bizkaia. En concreto, se entenderá que existe digitalización cuando se refiera a la implantación de las tecnologías de digitalización básica y avanzada reguladas en dicho decreto.

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Bitarteko eragileak, 2.a) oinarrian definitutakoaren arabera, izan daitezke dirulaguntzen onuradunak.

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones los agentes intermedios definidos conforme a la base 2.a).

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

2. Las entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

a) Tener su domicilio social y fiscal en la Comunidad Autónoma Vasca.

b) Berezko nortasun juridikoa izatea.

b) Tener personalidad jurídica propia.

c) Egunean edukitzea zerga betebeharrak,

c) Encontrarse al corriente de sus





Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.

obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

d) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere).

d) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu.

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan (aurrerantzean 1/2023 Legegintzak Dekretua) adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

a) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Decreto Legislativo 1/2023).

b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluaren aurreikusitako

b) Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no





termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

c) Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.

d) Ondasun-erkidegoak.

e) Sozietate zibilak.

f) Prestakuntza zentroak.

g) Toki- eta landa-garapenerako agentziak.

h) Tokiko (udalerri bakarrari buruzkoak) enpresa-elkarteak.

i) Enpresen dinamizazioa estatutuetan berariaz identifikaturik ez duten entitateak.

j) Pertsonen edo profesionalen elkarteak.

k) Lanbide-elkargoak.

l) Bilbao Bizkaia Design Council-en (BiDC) identifikatutako sormen-industrietako sektoreren bateko enpresak biltzen dituzten Bizkaiko elkarte sektorialak. Honako hauek dira sektoreak: arkitektura, artea, artisautza, ikus-entzunezkoak, komunikazioa, eduki digitalak, diseinua, barne-diseinua, moda eta bideo-jokoak.

m) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide diren erakundeak, salbu eta agente bereziak eta eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza-agentzeak.

discriminación.

c) Las Sociedades Públicas y Entidades de Derecho Público.

d) Las comunidades de bienes.

e) Las sociedades civiles.

f) Los centros de formación.

g) Agencias de desarrollo local y rural.

